

# EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA - SATEVI

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak > Tratu txarrak jasaten dituzten emakumei edo familiei laguntza ematea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**Matxista indarkeriaren biktima** diren emakumeak.

## Kostua

**Doako zerbitzua.**

## Baldintzak

**Ez du administrazio-baldintzarik.**

## Zertan datza?

Genero-indarkeria jasaten duten emakumei informazioa eta laguntza psikologikoa ematen dien telefono bidezko zerbitzua edo zerbitzu telematikoa ([2.7.1.2 fitxa](#)). Egunean 24 orduz, urtean 365 egunetan funtzionatzen du. Zerbitzu konfidentziala da, era anonimoan dei daitekeena, eta honako hau eskaintzen du:

- Entzute aktiboa, laguntza emozionala eskainiz.
- Emakume erabiltzaileen ingurune hurbilenean dauden baliabideei buruzko informazioa: gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, judizialak, polizialak eta beste.

- Emakumeak esku hartzeko baliabideetan hitzordua eskatu nahi duenean, bertara bideratu.

## Norentzat?

- Matxista indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- Emakume horien inguruko senideak eta gertukoak eta informazioa edo aholkua eskatzen duten profesionalak
- Egoera horiei eta eskura dauden baliabideei buruzko informazioa bilatzen duten pertsonak.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Doako** zerbitzua da.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ez da inolako baldintza administratiborik eskatzen.

## Non eska dezaket zerbitzua?

### **SATEVI - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatua**

**Telefonoa:** 900 840 111

- 24 orduz, asteko 7 egunetan.
- Ez du arrastorik uzten fakturan.
- Eskuragarria 51 hizkuntzatan.
- Entzumen- edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-hizkuntzako interpretea.

[Web orrira sartu](#)

## Informazio gehiago

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

[Kontsultatu informazio osoa](#)